



Kultura- eta sormen-sektoreen finantzaketa ereduak



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura- eta sormen-sektoreen finantzaketa ereduak

Motak eta jardunbide egokiak

1_Aurkezpena _3

2_Kultura- eta sormen-sektorearen ezaugarriak _4

3_Finantzaketarako laguntza publikoaren baldintzak eta ereduak _10

3.1. Finantza-arloko baldintzak _10

3.2. Laguntza publikoko ereduak _11

4_Tresnen eta tipologiaren azalpena _13

4.1. Zuzeneko laguntza publikoko tresna berritzaileak _13

4.2. Zorra finantzatzeko tresnak _14

4.3. Kapitala finantzatzeko tresnak _15

4.4. Bermeetarako tresnak _16

4.5. Tresnen motak, helburuen arabera _17

5_Kasuen azterketa _19

6_Ondorioak _24

1_Aurkezpena

«Merkatuaren zatikatzea, finantzaketa eskuratzeko aukera urriak eta kontratuen baldintzen ziurgabetasuna oraindik ere kultura- eta sormen-sektoreentzat oztopo dira, baita sektore horietako profesionalen diru-sarreraren murrizgarri ere».

Europako Kultur Agenda berria, 2018.

Finantzaketa eskuratu ahal izatea erronka garrantzitsua da oraindik kultura- eta sormen-sektoreentzat. Europako Kultur Agenda berriak berriaz aipatzen du hori, eta ekonomiaren aldetik, kultura- eta sormen-industrirentzako ekosistema onuragarriak sustatzea helburu jartzen du; horretarako, finantzaketa eskuratu ahal izatea, berrikuntzarako ahalmena, egile eta sortzaileentzako bidezko ordainketa eta sektoreen arteko lankidetzaren beharrezkoak izango dira.

2016tik, Europak badu Europako Inbertsio Funtzak kudeatutako kultura- eta sormen-sektorearen berme-tresna, eta Europa Sortzailea programaren bidez hel dakiok horri; tresna hori hasiera pozgarria da eta sendotu egingo da. Gainera, beste tresna batzuk ere aztertzen jarraituko da, adibidez mikrofinantzaketa kolektiboa eta babesen, fundazioen eta elkarte publiko eta pribatuen bidezko finantzaketa pribatua. Europar Batasunaren epe luzeko hurrengo aurrekonturako (2021-2027), Europako Batzardeak proposatu du Europa Sortzailearen, Europako ikus-entzunezko obrei eta kultura- eta sormen-sektoreei laguntzeko programaren finantzaketa handitzea, 1.850 milioi eurora arte.

Kultura- eta sormen-sektore horiek osatzen dituzten mikroenpresa eta ekintzaileak ez daude ohituta enpresa-tresnekin lan egitera, eta denbora gutxi daukate kudeaketa-lanetan aritzeko. Hori dela eta, Administrazioa eredu berriak arakatzeko ari da sektore horiek finantzaketa eskura izan dezaten, eta arakatzeko-lan horren adibideak ugariak dira.

Txosten honen helburua kultura- eta sormen-sektoreen profileen sakontzea, euren finantzaketa-beharrak identifikatzea eta behar horiei erantzuna emateko aplikatzen ari diren tresnak aztertzea da.

2 Kultura- eta sormen-sektorearen ezaugarriak

Kultura- eta sormen-industriak sektore ekonomiko garrantzitsua dira, enpresa-sarean eta enpleguan pisu handia daukatelako, dinamikoak direlako eta sormenak zuzeneko nahiz zeharkako eragin positiboak dauzkalako berrikuntzan, eta ondorioz, gainerako sektore ekonomikoetan ere bai. Hala ere, industria bereziak direnez, euren berezitasunei egokitutako finantzaketa-aukerak behar dituzte. Aspaldi, 2012an, Batzordeak egindako txosten batek¹ zera zioen: «Kulturaren eta sormenaren arloko enpresak txikiak dira, eskaintzen dituzten produktuen gaineko eskaeraren inguruan ez dago ziurtasunik, negozio-plan konplexuak dituzte eta ez dute aktibo hautemangarririk; arrazoi horiek guztiak oztopoak dira kanpo-finantzaketa lortzeko orduan. Kapital-finantzaketa, Angel Investment delakoa, arrisku-kapitala eta bermeak finantzaketa alternatiboak izan daitezkeen arren, oraindik ez dira askorik erabiltzen. (...) hori dela eta, finantza-erakundeek ezagutza gehiago behar dituzte sektore horien potentzial ekonomikoaren inguruan, eta hautemangarriak ez diren aktiboak dituzten enpresak ebaluatzeko gaitasuna garatu behar dute».


Nolanahi ere, argibide batzuk eman behar dira kultura-industrien eta sormen-industrien ezaugarrien arteko diferentziei buruz. Kultura-industrien barruan jarduera defizitarioa daukaten sektoreak sartzen dira, bereziki proposamen experimentalenen eta ausarten kasuan. Sormen-industrien asmoa batik bat merkataritza arlokoa da, etekina lortu zein ez, edozein negoziotan bezala. Hala, ezaugarri berberak eduki arren, beren beharrianak laguntza publikoaren ikuspuntutik ezberdinak izan daitezke.

EAEko kultura- eta sormen-sektoreen dimentsioa eta merkatua


Jarduera Ekonomikoen Gidazerrrendako datuen arabera, 2016an EAEko kultura- eta sormen-sektorean guztira 15.437 enpresa zeuden, horien % 40,7 (6.286 enpresa) kulturaren eremukoak ziren eta % 59,3 (9.151 enpresa) sormen-arlokoak. 2016an sormen-arloko enpresak gehiago izan ziren kultura-arlokoak baino, baina enplegatutako pertsonen kopurua handiagoa zen kultura-arlokoetan. 2. irudian ikus daitekeenez, 2016an kultura- eta sormen-industrien sektorean guztira 45.365 pertsona ari ziren lanean; horietatik 25.263k kultura-arloko jarduerak egiten dituzte, eta 20.102k sormen-arlokoak.

¹ Promoting cultural and creative sectors for growth and jobs in the EU COM(2012)537

1. irudia. KSlen sektoreko enpresak. 2016.




2. irudia. KSlen sektoreko enpleguak. 2016.



Lurraldeen arabera, kultura- eta sormen-enpresak Bizkaian eta Gipuzkoan daude gehienbat. Sormen-enpresen % 51 eta kultura-enpresen % 50,3 Bizkaian dago errotuta; Gipuzkoan, % 36,4 eta % 37,0, hurrenez hurren. Araban, sektoreko enpresen % 13 daude, gutxi gorabehera. Hala ere, enpresa horien pisua kalkulatzeko


bada lurralde bakoitzean kokatutako enpresa guztiekin alderatuta, Gipuzkoa nabarmentzekoa da, bai kultura-industrien aldetik (batezbestekoa baino % 0,29 gehiago), bai sormen-industrien aldetik (batezbestekoa baino % 0,35 gehiago).

3. irudia. KSlen sektoreko enpresak, lurralde historikoen arabera. 2016.




Enpleguei dagokienez, egoera antzekoa da: Kultura- eta sormen-enpresen enpleguak ere Bizkaian eta Gipuzkoan daude gehienbat. Sormen-enpresen enpleguaren ia-ia % 51 eta kultura-enpresen % 48 Bizkaian dago errotuta; Gipuzkoan, % 36,7 eta % 39,5, hurrenez hurren. Araban enpleguaren % 12,5 dago ia-ia, kultura-enpresei nahiz sormen-enpresei dagokienez. Termino erlatiboetan, Gipuzkoa nabarmentzen da, lurralde horretan enpleguak kultura-industrietan (batezbestekoa baino % 0,54 gehiago) nahiz sormen-industrietan (batezbestekoa baino % 0,24 gehiago) pisu handiagoa baitauka lurraldean kokatutako enplegu guztiekin alderatuta.

4. irudia. KSlen sektoreko enpleguak, lurralde historikoen arabera. 2016.



KSlen sektoreetako enpresen tamainaren erakusgarri ona da enpresei eta enpleguei dagokienez halakoek EAE osoarekin alderatuta daukaten pisua: KSlen enpresak enpresa-sarearen % 9,8 dira; enpleguak, aldiz, autonomia-erkidegoko enpleguaren % 5,3 dira.


5. irudia. KSlen sektoreko enpresak eta enpleguak eta EAEko osokoa. 2016.



Establezimenduen % 80k baino gehiagok 1 eta 2 langile artean dituzte. Joera hori iraunkorra da, baita mikroenpresetan ere (3 eta 9 enplegatu artean dituztenak), % 11 izaten jarraitzen baitute; enpresa txikiak (10-49 enplegatu artekoak) % 4 inguru dira; eta azkenik, enpresa ertain eta handiak sektoreko establezimenduen % 0,5 dira.

Nolanahi ere, egoera ikusita, sarearen ezaugarriak elkarren artean oso diferentek dira; profesional autonomoek eta mikroenpresek oinarri zabala osatzen dute, eta horrekin batera dimentsio handiagoa daukaten beste profil batzuk ageri dira. Enpresa txikiak (10 eta 49 enplegu artean) 678 establezimendu dauzkate, eta ertain eta handiek, 78.


6. irudia. KSlen sektoreko establezimenduak enpleguaren zenbatekoaren arabera. 2013-2016.



Diskurtso-ildo beretik doaz Kulturaren Euskal Behatokiak Arteen eta Kultura-industrien Estatistikaren emaitzetatik abiatuta emandako datuak. Sektore batzuen eta besteen asimetriei eta kontzentrazio-mailei orokorrean begiratu gero, ikus daitekeenez, diru-sarrerarik handienak dauzkaten eragileen % 20k sektore bakoitzeko diru-sarrera guztien 10 eurotik gutxienez 7 eta gehienez 8 euro metatzen dituzte. Diru-sarreraren kontzentrazio hori, euren jardueraren kontzentrazioarekin alderatuta, lagungarria da jardueren eta negozioen arteko diferentziak ikusteko. Hala, nabarmentzekoa da eragileen % 20 horrek kultura-merkataritzan daukan pisua: sektore horietako salmenten % 70 eta % 80 bitartean metatzen du. Hala ere, diru-sarreraren kontzentrazio-maila handiena daukaten erakusle eta programatzaileen taldearen jarduerak % 40 eta % 50 bitarteko

pisua dauka sektore osoan. Eragile nabarmenen talde horren eta gainerakoen arteko diferentzia ez datza kontzertuen edo emanaldien kopuruan, baizik eta programatzen dituzten ikuskizunen eta kontzertuen kostuan.

7. irudia. Eragileen tipologiaren rankinga, diru-sarrera gehien dituzten eragileen % 20ko diru-sarreraren kontzentrazioaren eta jarduera-zenbatekoaren* arabera. Ehunekoa. 2015



* Disko-saltokiak eta liburu-dendak = salmentak; argitaletxeak = nobedade gisa editatutako tituluak; arte eszenikoak = funtzioak; musika = kontzertu programatuak; ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxeak = ekoizpenak; ikusizko arteak = erakusketak).

Sektore pribatuari ematen zaion laguntza publikoaren (diru-laguntzen) norainokoa ere ez da berdina, ezta sektore pribatuaren jasangarritasuna ere.

8. irudia. Laguntza publikoa sektore pribatuan. 2015.

Tipologia	Ekarpen publikoen % ²	Diruz lagundutako eragileen ekarpen publikoen % ³
Antzerki-taldeak	15,1%	22,3%
Dantza-taldeak	34,2%	36,1%
Argitaletxeak	4,1%	6,1%
Liburu-dendak	0,0%	0,1%
Musika-sustatzaile pribatuak	5,0%	11,5%
Kontzertu-aretoak	8,6%	9,5%
Diskoetxeak	6,6%	6,6%
Disko-saltokiak	0,0%	0,0%
Arte-galeriak	2,1%	3,6%
Ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxeak	8,0%	16,8%
GUZTIRA	4,9%	9,3%

9. irudia. Sektore pribatuaren jasangarritasuna. 2015.

Tipologia	Irabazi garbia (euroak)	Irabazien %a diru-sarrerekin alderatuta	Balantzea ekarpen publikorik gabe (euroak)
Arte eszenikoen ekoizleak	628.668	5,1%	-1.512.018
Argitaletxeak	2.638.413	8,5%	1.361.532
Liburu-dendak	2.466.618	4,4%	2.442.326
Musika-sustatzaile pribatuak	2.357.224	8,2%	912.209
Kontzertu-aretoak	-423.812	-13,0%	-704.843
Diskoetxeak	-21.223	-3,3%	-63.755
Disko-saltokiak	98.571	3,3%	98.316
Arte-galeriak	807.387	33,1%	756.255
Ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxeak	1.114.130	2,3%	-2.690.585
GUZTIRA	9.665.978	5,2%	599.436

2_Kalkuluak adierazten du jasotako ekarpen publikoen ehunekoa diru-sarreraren guztizkoari dagokionez, eragileen tipologiaren arabera.

3_Kalkuluak adierazten du ekarpen publikoen ehunekoa diru-sarreraren guztizkoari dagokionez, eragile-tipologiaren arabera, betiere, ekarpen publikoren bat jaso duten eragileen kasuan.



Hala, bada, tamainen, ahalmenen eta mendekotasun publikoen alderdian dagoen aniztasun horretatik finantza-beharrizan diferenteak sortzen dira Eragile kopuruaren aldetik zabala den sektore bati egokitu beharko zaizkio formulak. Sektore horrek oinarri handia dauka; era berean, sektorea osatzen duen ehuna txikia eta hauskorra da, baina dinamikoa da eta egoera txarrei egokitzeko gai ere bai. Tamaina handiagoko enpresak ere daude; ez dira asko, KSlen sektore osoarekin alderatuta, baina negozioren zatirik handiena biltzen dute, eta nahikoak dira (gutxi gorabehera 700 eragile), asmo handiko eta aniztasun handiko finantza-produktuak gogoan izateko beste.

Finantza-produktuak eskuratzeko eragozpenak

Ezagutzaren ekonomian eta sormenaren ekonomian balioa eta aberastasuna kapital ukiezinan daude (ezagutza, *know-how*, jabetza intelektuala, harreman-kapitala, posizionamendua, talentua, eta abar). Esan ohi da nekez kuantifikatu ahal den ekarpena egiten duela, hain zuzen ere aktibo ukiezinetan oinarritzen delako⁴. Hala ere, gero eta ebidentzia gehiagok agerian jartzen dute ekonomi-ekoizpena funtsezko eraldaketa baten bidean dagoela. Industria-ekonomian aktibo ukiezinak ziren inbertsiorik handienaren xede, aktibo horiek sortzen baitzuten ekonomia-garapena; gaur egun, aldiz, sormen-ekonomiaren aktibo ukiezinak dira inbertsioaren xede nagusiak, baita balio-iturriak eta hazkundearen eragileak ere. Hain zuzen ere, azken urteotan aktibo ukiezinaren merkatu-balioari buruzko ikerketa egiten ari da, balio hori jabetza intelektualeko eskubideen ustiapenari lotuta. Eraldaketa horren testuinguruaren barruan ikusi behar da kultura- eta sormen-sektoreek finantzak eskuratu ahal izatea, daukan garrantzia ulertuko dela ziur izateko.

Sektore hori auresaten zailagoa da, eta arrisku handiagokoa ere bai, beste sektore batzuk baino; beste sektore horietan, inbertsioak etorkizunean ekartzen dituen agertokiak bermatuago daude. Finantza-entitateek nahiago dute eragiketak egin hasieran kaudimen-berme handiagoa daukaten eta euren irizpide tradizionaleri hobeto egokitzen zaizkien sektoreetan.

Gogora ekarri behar da finantza-krisiaren ostean bankuek arriskuak kudeatzeko mekanismo askoz murriztaileagoak ezarri zituztela. Hain zuzen ere, arriskuak kudeatzeko sailak dauzkate; sail horiek hartzen dituzte erabakiak, baina ez daude ohituta kultura- eta sormen-sektoreekin lan egitera. Hori dela eta, premiazkoa da administrazio publikoek parte hartzea eta, hartara, sektore horien beharrezko beren-beregi egokitutako tresnak proposatzea.

Open *Method of Coordination* delakoaren bitartez Europako Batasunarentzat egindako txosten batean⁵, kultura- eta sormen-sektorearen berariazko ezaugarrien artean finantzaketa eskuratzeko eragozten dutenak azaltzen dira; ezaugarri horien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Bere jardueraren berezko ezaugarriak: aktibo ukigarriak ez egotea, aktibo ukiezinakiko mendekotasuna, bermerik ez, merkatuaren eskariaren ziurgabetasun handia, balioak denbora-epe luzeetan sortzea eta abar.
- Bere erakundearen eta eragile ekintzaileen berezko ezaugarriak: enpresa arloko trebetasun eskasak, laguntza publikoekiko mendekotasuna, negozioren kontrola galtzeko beldurra eta abar.
- Merkatuaren berezko ezaugarriak: merkatuaren tamaina (adibidez, Europa osoan dagoen kultura- eta hizkuntza-zatiketa), merkatua ez ezagutzea, dauden negozio-ereduen aldaketak (besteak beste aldaketa digitalaren ondorioz), eta abar.

Zehatzago, finantza eskuratzeko sektore horiek dauzkaten honako eragozpen hauek ere azaltzen dituzte:

- Dauden finantzaketa-iturriari buruzko informazio-falta behin eta berriz aipatzen da egindako azterlanetan.
- Enpresen eta merkatuaren artean informazioaren aldetik dagoen desadostasuna.
- Sormen-industriako negozio-ereduei buruzko merkatu-azterketen falta, dela iraganari buruz, dela joerei buruz.

⁴ Kulturaren Euskal Behatokiak egindako **Ukiezinen balorazioa, kultur agenteekin eginiho finantza eragiketetan** izenburuko txostena (2012) kontsultatu ahal da

⁵ **Good practice report towards more efficient financial ecosystems: innovative instruments to facilitate Access to finance for the cultural and creative sectors** (2015).



- Jabetza intelektualaren balorazioari lotutako gaiak.
- Finantza-entitateek sektorea ez dute ondo ezagutzen.
- ETE-ek euren finantzak epe ertainean eta luzean planifikatzeko ahalmen urria daukate.
- Kultura- eta sormen-sektoreetako ETE-ek proiektu zehatzetarako bilatu ohi dute finantzaketa, ez negoziarako, orokorrean. 2010ean Batzordearentzat egindako azterlan baten arabera, kultura- eta sormen-sektoreek merkataritza alderdian arrakasta urria izaten dute hainbat arrazoiengatik, besteak beste euren joera batik bat proiektuak finantzatzea delako, enpresa bera finantzatu beharrean. Kultura- eta sormen-enpresen % 37,2 soilik saiatzen da beren-beregi negoziarako finantzaketa lortzen, proiektu individual baterako bilatu beharrean. Sormen-enpresek inbertsio handiagoa erakartzerakoan arrakasta izango badute, arreta handiagoa eman beharko zaie finantza korporatiboei (adibidez, kapital-finantzaketari).
- Helmen handiko berrikuntza arloko proiektu eta prozesuetarako finantzaketa- eskaintzan gabezia sistematikoa dago.

Azterlanek diotenez, sormen-arloko ETE-ei ez zaie anbiziorik falta merkatu berriak irekitzeko eta produktu edo zerbitzu berriak garatzeko. Ordea, beste sektore batzuei baino zailagoa zaie finantzaketa eskuratzea. Alde horretatik, berretsi egiten da euren kudeaketarako trebetasun eta gaitasunak hobetu behar direla, kontuan hartuta sektore oso ezberdina dela, enpresen tamainari eta ezaugarriei dagokienez; alegia, eragile oso txikiak ugariak dira; enpresa handiak, aldiz, gutxi. EAEko datuen kasuan egiaztatu denez, hemen ere joera hori errepikatzen da.

Beste sektore batzuekiko antzekotasunak

Baina berezitasunak eta eragozpenak baino zerbait gehiago ere dago. Azterlan batzuek agerian jartzen dituzte beste sektore batzuekiko antzekotasunak, bai egitura ekonomikoari dagokionez, bai finantza-arloko beharriaz eta finantza-entitateekiko harremanari dagokienez:

- Enpresen egitura ekonomikoa: IDEA Consult⁶ erakundearen inkestak emandako datuek agerian jartzen dutenez, enpresa horien likidezia- eta kaudimen-ratioak beste sektore batzuetako ETE-en ratioen antzekoak dira. Hala gertatzen da Batasuneko estatu-kide guztietan, salbu eta Zipren eta Grezian, eta neurri txikiagoan, Italian, Letonian, Luxenburgon, Maltan, Portugalen eta Errumanian; herrialde horietan, konparazioa eginda, kultura- eta sormen-sektoreak beste batzuk baino okerrago daude.
- Finantza-entitateekiko harremana: azterlanek agerian jartzen dutenez, inbertitzaileek kultura- eta sormen-sektoreetako enpresak beste sektore batzuetako enpresetatik bereizten dituzte, enpresa horien ordainketa-ahalmena eta enpresa-arriskua ebaluatzerakoan. Interesgarria da honako hau azaltzea: kultura- eta sormen-sektoreak normalean norbanakoek sustatzen dituztenez, arrisku-ebaluazioaren fokuan ez da egoten sektorea, baizik eta pertsona edo ekintzaile-taldea.

6_ Survey on Access to finance for culture and creative sectors (2013)

3 Finantzaketarako laguntza publikoaren baldintzak eta ereduak

Administrazioa formula berrien bila dabil; laguntzen dituen kulturaren eta sormenaren alorreko enpresak garatzeko prozesuan etengabe parte hartzea eskatzen du bilaketa horrek. Erantzukizun horretan oinarrituta, jarduteko bideak askotarikoak dira, zuzeneko laguntzetatik hasita, finantza-entitateekiko bitartekaritza-lanez arduratzeraino.

Jarraian azalduko dira kultura- eta sormen-sektoreetako enpresen ekonomia baldintzatzen duten inguruabarrak eta laguntza publikorako dauden ereduak.

3.1 Finantza-arloko baldintzak

Enpresen eta finantza-entitateen arteko harremana ez da lineala, ezta unibokoa ere. Batzuen zein besteen barnean nahiz kanpoan dauden faktoreen bilbe baten mendean dago harreman hori. Faktore horiek euren egoera, euren beharrianak eta euren aukerak baldintzatzen dituzte finantzei dagokienez. Bi aldeek gai izan behar dute faktore horiei antzemateko eta konpartitzeko.

Finantza bilatzeko gaitasunean eragina duten enpresa barruko faktoreetako bat da euren finantzen egoera (berezko baliabideak, inbertitu ahal izateko onurak, likidezia eta abar), eta bigarrenez, beste faktore bat dira taldearen gaitasun eta ahalmenak, bai sormenaren ikuspuntutik, bai enpresaren kudeaketarako.

Kanpoko faktoreak dira, besteak beste, merkatuarekin zerikusia dutenak (kuota, arriskua, joerak eta abar), bai eta sektoreak hedabideetan duen irudia ere, iritzi-liderrak, politikariak, analistak eta finantza-erakundeak. Bigarrenez, kasu bakoitzean indarreko legeriarekin zerikusia duten guztiak, adibidez jabetza intelektuala, zerga-alderdiak, finantzen arauak eta abar. Eta, azkenik, finantzekin zuzeneko nahiz zeharkako zerikusia daukaten eragile, erakunde eta hornitzaile guztiak, publikoak nahiz pribatuak, hasita hurbilenetatik –familia edo lagunak–, kluster, inkubagailu, bizkortzaile edo unibertsitateetatik, inbertitzaileetaraino, bidean administrazio publikoak edo banku-erakundeak daudela.

10. irudia. Kultura- eta sormen-sektoreen finantza-arloko baldintzatzaileen eskema



3.2 Laguntza publikoko ereduak


Kultura- eta sormen-sektoreen berezitasunengatik, batik bat sektore batzuen izaera defizitarioarengatik, administrazio publikoek emandako laguntzen eredu nagusia zuzeneko da, batez ere diru-laguntzen bidez. Nolanahi ere, laguntzarako zeharkako beste formula batzuk daude, dela zorreko edo kapitaleko finantzaketa-tresnak, dela bermeen bidez edo zerga-pizgarrien bidez.

Horiez gain enpresentzako laguntza publikoen beste formula batzuk aipatu ahal dira, mota horretako laguntzen osagarri izan ohi direnak; beste formula horiei buruz Behatokiak azterlan bat egin zuen 2014an⁷. Halaber, zuzeneko laguntzen formulei buruzko informazioa eta zerga-pizgarrien azalpena zabalago ikus daitezke 2018an argitaratutako kultura-politiken ereduari buruzko txostenean⁸.

⁷ Kultura-enpresentzako laguntza publikoa (2014)

⁸ Kultura-politiken ereduak (2018)

11. irudia. Laguntza publikoko ereduaren eskema.



Zuzeneko laguntzen ereduak

Diru-laguntzak, Administrazio Publikoek pertsona publikoen edo pribatuen alde egindako diru-jarpenak dira. Bi motatako diru-laguntzak daude: norgehiagokakoak eta zuzenekoak edo izendunak. Oinarrian duten argudioa da herritarrei eta gizarte osoari onura ekartzeko ahalmena dutela. Kulturaren esparruan diru-laguntzak erabiltzearen espezifikotasunetako bat da funtsezkoak direla kultur sektoreen iraupen eta jasangarritasunerako.



Bekak edo ikasketarako laguntzak, ezinbestean prestakuntzari lotuta doazen laguntza ekonomikoak dira. Normalean, bekak eta ikasketarako laguntzak ematea zuzeneko laguntza gisako pizgarri ekonomikoko jardueratzat jotzen dira; diru-laguntzen antzeko ezaugarriak dauzkate, baina batzuetan zeharkako laguntzen formulak ezar daitezke (matrikularen zenbatekoa ordaintzetik salbuestea).

Administrazioek merezimenduengatik edo zerbitzuengatik ematen dituzten **sariak** edo aintzatespenak, sustapen-jardueratzat jotzen dira, normalean horiekin batera diru-kopuruak ematen dira eta diru-laguntzen kontzeptuaren barruan sartzen dira, araubide berdina eduki ez arren.

Txekeen edo bonoen politikak, hornitzaileei zerbitzuak erostek gobernuek enpresei eta ekintzaileei eskaintzen dizkieten kreditu-lerro txikiak dira. Enpresetan berrikuntzak txertatzeko aplikatzen ari dira (produktuetan, prozesuetan edo zerbitzuetan).

Kapitala finantzatzan: ez da batere ohikoa kultura- eta sormen-enpresen artean. Mota horretako finantzaketarako bideak honako hauek dira: arrisku-kapitala (euren baliabideak orokorrean berritzaileak diren ETE-en aldi baterako finantzaketan inbertitzen dituzten sozietate anonimoak), edo negozio berriak babesteko edo negozio horietan parte hartzeko interesa daukaten inbertitzaile pribatuak (*business angels*).

Zerga-onurak: kultura- eta sormen-sektoreei pizgarriak emateko zerga arloko tresnen artean zeharkako pizgarriak nabarmenena zerga-onurena da. Xede horrekin, zerga-arloko salbuespen, kenkari edo arinketak aplikatzen zaizkie gizartearentzat onuragarriak diren jarduera, ondasun edo zerbitzuei. BEZari, PFEZari, sozietateen gaineko zergari eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari aplikatzen zaizkie. Diru-laguntzetan ez bezala, hemen ez da diru-publikorik ordaintzen; aitzitik, diru-sarrerak gutxitzen dira, diru-bilketa ere murrizten delako, eta hori, zeharka, gastu gisa berrinterpretatu daiteke.

Finantzaketaren edo zeharkako laguntzen ereduak

Zeharkako pizgarrietako batzuk dira **finantzaketa-tresnak**, dela zorrekoak dela kapitalekoak, bai eta **zerga-onurak** ere.

Administrazioak babesten dituen finantzaketa-tresnak zeharka jarduteko bide bat dira; administrazioa bera abal-emaile eta erraztaile da, ez mailegu-emaile. Laburbilduta, administrazioak honetan eman ahal du laguntza:

- Abalatzan:** finantzaketa pribatua eskuratzea errazten dute, banku- edo finantza-entitateak eta Administrazioak proiektu sortzaile baten finantzaketa-arriskua banatzen dutelako. Hainbat berme-mota dago.
- Zorra finantzatzan:** maileguen edo mikro-kredituen bitartez finantzaketa eskuratzeko bidea ematen du. Enpresek negozio bat irekitzeko edo lehendik dagoen negozio batean jarduteko behar duten kapitala lor dezaten laguntzeko modua da.

4 Tresnen eta tipologien azalpena

Atal honetan, arretaren gunean laguntza publikoko tresnen ezaugarriak egongo dira, bai zuzeneko tresnen ezaugarriak, bai beste batzuenak, zeinetan administrazio publikoa bitartekari baita beste finantza-entitate batzuekin batera. Azterketatik bazter geratzen dira ohikoenak, adibidez diru-laguntzak, eta formula berritzaileagoak hartzen dira ardatz; formula horien ezaugarriak, helburuak eta aplikazio-eremuak azaltzen dira. Adibideak hautatzeko, bi irizpide hartu dira kontuan: EAEko kasuak izatea eta kultura- eta sormen-sektoreen beharrezanekin lotura eduki ahal izatea.

4.1 Zuzeneko laguntza publikoko tresna berritzaileak

Txekeak. Txeke edo bonoek eskubidea ematen dute doako zerbitzu bat ordaintzeko, normalean enpresan berrikuntza txertatzearekin zerikusia duten zerbitzu bat. Formula hori gasturako bono gisa ematen diren diru-laguntzetan datza; diru-laguntza horiek zerbitzu berritzaileetan espezializatutako erakunde edo enpresen zerbitzuetan inbertitu behar dira. Normalean enpresa-arloko berrikuntzarekin eta garapenarekin zerikusia duten zerbitzu espezializatuekin trukutzen dira (honetako zerbitzuak dira: marketina, kudeaketa, diseinua, jabetza intelektualeko eskubideak, I+G eta abar). Europako Batzordeak gomendatu egiten ditu, laguntzak eskuratzeko oztopoak kentzeko tresna diren aldetik.

Berrikuntzako txekeen programak produktu, zerbitzu edo prozesuetan berrikuntza sustatzeko erabiltzen dira, baita ikerketa aplikatua sustatzeko ere, enpresen, ikerketa-zentroen eta administrazioaren arteko elkarlanaren bidez. Formula batzuen xedea da sektoreen arteko lankidetzaren bilatzea, adibidez sormen-sektoreetako merkatuak irekitzeko Business to Business (B2B) programak. Sormen-arloko ETE-en eta enpresa handien arteko elkarlana sustatzen saiatzen dira, balio erantsiko erraztaile horizontalak izan daitezten.

Txekeak aspalditik aplikatzen dira beste sektore batzuetan. EAEn, SPRIk 2012an abian jarri zituen. Beste autonomia-erkidego batzuetan ekonomiaren garapeneko agentziek sustatutako esperientziak daude. Sormen-sektoreetan Europako herrialde askotan aplikatzen ari dira (Austrian, Portugalen, Wallonian, Londresen...). Mota horretako tresnei buruz egindako kanpoko ebaluazioek diotenez, mikroenpresetan oso ongi funtzionatzen dute.



Ekarpen berreskuragarriak. Ekarpn berreskuragarriak “kofinantzaketa” erako laguntza ekonomikoak dira, enpresari proiektu kultural baterako finantzaketa izatea ahalbidetzen diotenak. Apustu berritzaile horren bidez laguntza ekonomikoak ekartzen dira, enpresak likidezia eskura izan dezan kultura-proiektu bati ekiteko. Laguntza horiek modalitate bikoitzean ematen dira: diru-laguntza gehi mailegua. Laguntza itzultzeko, proiektuaren finantza-beharrizanei egokitutako epe bat ezartzen da, kontuan hartuta proposamenak arrakasta edo porrota izan duen. Kultura-proiektuaren ustiapen-aldia hasten denean, ekarpena itzultzen hasten da, interesik gabe. Halako ekarpenak eskuratzeko, proiektuaren interes kulturala eta bideragarritasun ekonomikoa baloratzen dira. Formula horrek arazo bat sor dezake: ekarpena ezin itzultzea. Hala izanez gero, norgehiagokarik gabeko diru-laguntza bihurtuko litzateke. Komenigarria da aukera hori aurreikustea ikuspuntu tekniko eta juridikotik. Tresna hori ez dago hedatuta beste sektore batzuetan.

Institut Catalá de les Empreses Culturals izenekoak (ICEC) proiektu kulturaletarako ekarpen berreskuragarrien programa berritzailea dauka. Programa horrek hainbat modalitate dauka, sektoreen, tipologiaren eta balio-katearen arabera. Proiektuaren motaren arabera, baliteke bermeak eskatzea.

4.2 Zorra finantzatzeko tresnak

Enpresek negozio bat irekitzeko edo lehendik dagoen negozio batean jarduteko behar duten kapitala lor dezaten laguntzeko tresnak dira. Zor bat finantzatzen da pertsona, enpresa, banku edo beste erakunde batek kapitala ematen duenean negozio baterako, eta enpresak mailegatutako kapitala gehi adosten den interes-tasa, ordaintzeko betebeharra duenean. Finantzaketa hori maileguen (bermatuta) edo mikroredituen (bermatu gabe) bidez egin daiteke. Maileguaren itzulketara bete ezean, bermeak galduko dira.

Mikro-kredituak zenbateko txikia duten maileguak dira, arrazoizko interesekin; horrekin batera beste finantza-zerbitzu batzuk ematen zaizkie ekintzaileei. Formula hori Muhammad Yunnus-ek sortu zuen 1976an, eta mundu osoan hedatu da. Normalean mikroenpresei eta euren kontura lan egin nahi duten pertsonen ematen zaizkie, banku-

zerbitzu tradizionalak eskuratzeko zailtasunak dituztenean; hortaz, gizarte-helburu argia daukate, gizarte- eta lan-arloko bazterketaren eta finantza-arloko bazterketaren aurka borrokatzeko. Mikroredituek hainbat ezaugarri daukate, eta horien artean nabarmentzekoak dira kopuru txikiak, lehentasunezko baldintzak –adibidez, komisiorik ez–, gabealdiak emateko erraztasun handiagoa edo merkatukoak baino interes-tasa txikiagoak. Baina ezaugarri nagusia da abalik ez dela eskatzen. Arrazoi horregatik, halakoak ematen dituzten erakundeak zorrotzak izan ohi dira proiektua hautatzean.

Maileguekin gertatzen den bezalaxe, inbertsioa edo zirkulatzaila-premiak finantzatu ahal dira.

Inbertsioa:

- Epe laburreko edo luzeko aktiboak erosteko inbertsio-maileguak, eragin positiboko jardueretan ekoizpen-ahalmena hobetzea xede dutenak.
- Higiezin erosteko finantzatzeko hipoteka-maileguak, higiezin horietan enpresaren ohiko jardura egiteko.

Zirkulatzaila:

- Zirkulatzaila finantzatzea enpresa baten jardura garatzean likidezia bermatzeko.
- Zirkulatzaila finantzatzeko kreditu- edo deskontu-lerroa. Horri esker kobrantzak aurreratu ahal dituzu, baita ordainketak kudeatu edo proiektu berriei ekiteko likidezia lortu ere.
- Aurrerakin-mailegua: erakundeentzako finantzaketa-lerroak, fakturak, kontratuak edo diru-laguntza publikoak aurreratzeko, erakundeek euren ohiko jardura ezin hobeto garatzeko halakoak aurreratzeko premia daukatenerako.

Euskadin, Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen finantza-politikako eta kreditu publikoko tresna **Finantzen Euskal Institutua** (IVF-FEI) da, Jaurlaritzaren barruan zehaztutako ekonomiaren eta gizartearen garapenerako politiken zerbitzurako tresna. Ekoizpen-sektoreei laguntza ematen die euren finantza-beharrizanak sendotzeko, betiere ingurune gainerako ekonomia- eta finantza-eragileekin elkarlanean aritzeko gogoarekin. Hainbat jarduketa-ildoren bitartez laguntza ematen du euskal enpresen inbertsiorako, nazioartekotzerako, hazkunderako, ekintzaitzarako eta berrikuntzarako.

PBestalde, esan ahal da **ELKARGI** Eusko Jaurlaritzaren zirkulatzailerako berrikuntzako finantzaketa-funts bat daukala ETE-entzat eta autonomoentzat, bai eta finantzaketa-programa bat ere (Aurrera) IVF-FElrekin eta lurraldeko BIC Enpresa eta Berrikuntza Zentroekin elkarlanean, enpresa txiki eta ertain ekintzaile sortu berriei epe luzeko finantzaketa eskura jartzeko. Nabarmentzekoak dira, halaber, kultura- eta sormen-industriei berariaz eskaintzen zaizkien bi produktu berriak: **LANDU eta ERAIKI maileguak**, dela enpresaren jarduerak eskatzen duen ezinbesteko likidezia lortzeko, dela proiektu handiak finantzatzeko.

4.3 Kapitala finantzatzeko tresnak

Formula horien bitartez, enpresak dirua jasotzen du akzioak lagatzearen truke. Akzio horien kopurua enpresaren balioaren eta inbertitu beharreko bolumenaren arabera izango da. Mota horretako tresnen artean daude partaidetza-maileguak, arrisku-kapitaleko sozietateak, *Business angels* izenekoak, hazi-kapitala (*Seed capital*). Finantzaketa-mota horrek ezohikoa izaten jarraitzen du kulturaren eta sormenaren arloko enpresen artean. Dena den, zenbait herrialdeetan, hala nola iparraldeko herrialdeetan, ildo honen aldeko apustua egiten ari dira, ekonomia sortzailea garatzen laguntzeko.

Partaidetza-mailegua mailegu tradizionalen eta arrisku-inbertsioen (arrisku-kapitala edo hazi-kapitala) artean erdibidean dagoen finantza-tresna da, eta eskatzen duen berme edo abal bakarra negozio-plan bideragarri eta kalitatezko bat da. Kasu horretan, mailegua edo finantzaketa ematen duenak, interesen ordainketa jasotzeaz gain, mailegu-hartzaileak edo finantzaketa jasotzen duenak lortutako etekinen arabera ordainketa jasotzen du. Horrelako partaidetza-maileguk enpresen finantzaketa-egitura sendotzeko balio dute, horretarako bitartekoa dela enpresen kapital iraunkorren hazkundea (epe laburrean), bai eta funts propioen hazkundea ere (epe luzean), behintzat maileguaren zenbatekoan, mailegu horren bizitza osoan. Tresna hori berezia denez, enpresak bere kontuak urtero aurkeztu behar ditu, eta kontu horiek ikuskatu behar dira zenbatekoa (edo zenbatekoen metaketa) 500.000 eurotik gorakoa bada edo sozietatea legearen arabera behartuta badago. Mailegu horien galdagarritasuna gainerako hartzekodunen mende dago (akziodunen mende izan ezik). Inbertsio

berriak finantzatzeko eta enpresaren zabalkunde eta nazioartekotzean laguntza emateko erabili ohi dira.

Arrisku-kapitala da arrisku handiko eta errentagarritasun handiko negozioak finantzatzeko gehien erabiltzen diren formulako bat. Beren baliabideak oro har berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak aldi baterako finantzatzen inbertitzen dituzten sozietate anonimoak dira. Arrisku-kapitalak ez du berme edo abal pertsonalik eskatzen inbertsioa jasotzen duten enpresen kapitalaren zati diren pertsonen aldetik; aitzitik, esan nahi du enpresan bazkide bat gehiago dagoela. Zenbatekoa konpainiak inbertsioa egiterakoan duen garapen-etaparen mende egongo da, baita antzemandako arriskuaren, inbertitu beharreko kopuruaren eta enpresaburu eta arrisku-kapitalistaren arteko harremanaren mende ere. Merkataritza-arriskua zati batean arintzeko, inbertitzaileen joera da negozioan sartzea eta euren esperientzia eta ezagutza eskaintzea. Arrisku-kapitalistaren parte-hartze hori erabakigarria izan daiteke enpresaren arrakastarako.

Ekimen pribatuak eta erakunde publikoek sustatutakoak bereizi ahal dira. Ekimen pribatuan, Espainian aitzindaria Bizkaiko **TALDE** Promoción y Desarrollo SA enpresa izan zen. Kapital pribatuaren kudeatzaile hori 1976an eratu zen, ETE-en garapenean laguntzeko; horretarako, finantza-baliabideak eta kudeaketarako laguntza ematen ditu, batik bat estatuko nahiz nazioarteko hazkundea eta sektorearen sendotzea helburu dituzten plan estrategikoak diseinatzean nahiz planok burutzean. Erakunde publikoen artean, Espainian eraturako lehenengo sozietatea **Axis** (1986) izan zen, ICO (Kreditu Institutu Ofiziala) taldeko arrisku-kapitaleko sozietatea.

Euskadin, 1985an SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa, **IKEKS** enpresa sortu zuen. Hala, sektore publikoak arrisku-kapitala sendotu zuen. Inbertsioak egiten dituzte bereziki berrikuntza osagai nabarmen duten ekintzailetza-proiektuetan, Europako RIS3 estrategiek bat egiten duten proiektuetan, eta euskal enpresen nazioartekotzea, hazkundea eta berrikuntza sustatzen dituzten proiektuetan. Nabarmentzekoa da 2019an eusko Jaurlaritzak arrisku-kapitaleko erakunde berri bat abian jarriko duela, aurtun 125 milioiko hasierako ekarpena eginda. Ekarpene hori 250 milioi eurora arte handitu daiteke. Berrikuntzaren eta nazioartekotzearen bitartez hedatzeko eta eraldatzeko beharra duten enpresa-talde eragileetan egingo du inbertsioa. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren emaitza da, arlo pribatuak gehiena aise hartzen duela.



Business angels izenekoek izen hori dute XX. mendearen hasieran Broadwayko antzerki-ekoizpenak babesten zituzten enpresaburuetatik. Inbertitzaile pribatuak dira, negozio berrietan inbertsioa egiteko interesa dutenak. Arrisku-kapitalak hirugarrenen dirua inbertitzen du; horrek ez bezala, inbertitzaile pribatu horiek euren dirua ekartzen dute, eta batzuetan euren denbora ere bai, aholkulari jarduten baitute, beste pertsona batzuek sustatutako enpresetan, haiekin senidetetasun edo adiskidetasun loturarik eduki gabe. Inbertitzaileak enpresa-proiektuaren esku jartzen ditu bere esperientzia eta bere harremanak. Zeregin garrantzitsua betetzen dute enpresa berritzaileak sortzeko laguntzari dagokionez, bereziki bizi-zikloaren hasierako faseetan (hazia eta abiaraztea). Dirua irabaztea espero dute, inbertitzaile hori motibazio nagusia ez den arren. Europar azken bi urteetan inbertsio pribatuak % 8,2 gora egin du, *Business Angels* Europako sarearen, EBANen **txosten** batek dioenez. Jarduerarik biziena duten herrialdeen artean Espainia bigarrena da, 66 milioi euro inbertitu baitira proiektu ekintzaileetan. Europako joera inbertsioak beste inbertitzaile batzuekin batera egitea da oraindik ere, baina inbertsioek nabarmen egin dute gora *business angels* eta inbertsio-funtsen artean (hazi-kapitalean).

EAEn hainbat ekimen dago, adibidez ORKESTRA-Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren baitan sortutako **Crece+** ekimena. Bere helburua da ekosistema ekintzailea sortzea, start upei laguntza emango diona finantzaketa bilatzerakoan eta inbertitzailei aukera emango diona inbertsioak egiteko eta hazteko potentzial handiko proiektu ekintzailei laguntzeko. 2011z geroztik, proiektu horrek inbertitzaile eta business angelsen sare sendoa du. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan orotariko sare bakarra da. Beste adibide bat da **Keiretsu Forum Euskadi**, Donostia Sustapenaren laguntza duena inbertitzaileen eta proiektu berritzaileen arteko finantzaketa-foroak antolatzeko.

Hazi-kapitalak edo **Seed capital** delakoak laguntza ematen du enpresa berriak sortzeko. Negozio berriak sortzea edo abiaraztea helburu duten funts horiek ez dira zertan itzuli. Normalean negozio berritzaileak eta hazteko aukerak dauzkaten *start up*etarako erabiltzen dira. Arrisku-kapitaletik bereizten dira, hazi-kapitalaren inbertsioak askoz txikiagoak izan arren arriskua handiagoa delako; izan ere, inbertitzaileak ez dauka aurrekaririk bere finantzaketa ebaluatzeko. Horregatik, inbertsioak normalean txikiagoak izaten dira arrisku-kapitalekoak baino, enpresan partaidetzaren maila eta akzioen kopurua berdina izanik ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko aldundiek hainbat sozietate eratu dute, adibidez **Seed Capital Bizkaia** enpresa, Arrisku Kapitalako Erakundeak Kudeatzeko Sozietatea SA. Bizkaiko Foru Aldundiaren mendean dago, eta 1989an sortu zen Europako Hazi Kapitalako Funtsak Sustatzeko Europako Erkideko Egitarauaren babesean, enpresa-proiektu berritzaileak (abiarazte-fasean) finantzatzeko asmoz. Gaur egun lau motatako finantzaketa-tresnak dauka: **I Funtza**, 1991n sortua, bokazio berritzailea duten enpresa-ekimenak sustatzeko; **BI Funtza**, 2006an sortua, bokazio berritzailea duten enpresa-ekimenak sendotzen laguntzeko; **FEIS Funtza**, 2014an sortua, gizarte-berrikuntzako ekintzailetza sustatzeko; eta **Mikro** Funtza, hori ere 2014an sortua, gehienez 25.000 €-ko mikrofinantzaketako proiektuetan parte hartzeko.

Gipuzkoan, 2007an, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketak (IKEKS) Seed Gipuzkoa sortu zuten erdibana. Bere helburua da lurralde historiko horretan oinarri teknologikoa eta berritzailea duten enpresa berriak finantzatzea, haien lehen urteetan. Hala, enpresa horien garapena bultzatuko dute, haien kapital sozialean parte hartuz.

Arabian, **Hazibide**, Arabako Foru Aldundiak, Vitoria-Gasteizko Udalak, Kutxabankek, Taldek eta Erkidek 1998an sortutako Hazi Kapitalako enpresa. Lurralde horretako enpresak bultzatu eta sustatzea du helburu, eta horretarako, haien kapitalean aldi baterako partaidetza du. Arabako ETE berriei edo sortu berriei bultzada ekonomikoa ematen die, kapital sozialean aldi baterako eta gutxiengoan parte hartuz eta gehienez 120.000 euroko ekarpena eginez.

4.4 Bermeetarako tresnak

Arriskuak murrizteko edo bermeetarako tresnek enpresari laguntza ematen diote, eta horretarako, enpresaren finantza-posizioa babesten dute kreditu-erakundeen, hornitzaileen, bezeroen edo Administrazio Publikoaren aurrean. Horrela, Elkarren Bermerako Sozietateek (EBS), irabazteko asmorik ez duten eta jarduketara-esparru espezifikoak –autonomia-erkidegoa edo sektorea– duten finantza-entitateek, enpresaren kreditu-arriskua euren gain hartzen dute, eta hala, euren finantzaketa-baldintzak hobetzen dituzte. Erakunde horiek ETE-ei eta autonomoei kreditua eskuratzeko aukera errazteko sortu ziren. Finantzaketa behar duen enpresa txiki



edo ertain orok abala lor dezake, baldin eta EBSko bazkide partaidea bada. Bazkide partaide izateko irizpideak EBS bakoitzak ezartzen ditu. Normalean, EBSko abalaren zenbatekoaren balioak diren partaidetzak eskuratzen dira

EAEn, **ELKARGI**k abal finantzario eta teknikoen zerbitzuak ematen ditu.

— Abal finantzarioak: inbertsioko edo zirkulatuzaileko maileguetarako, zirkulatuzaileko, berrikuntzako edo esportazioako lerroak.

— Abal teknikoak: administrazioaren aurrean, nazioartekoak, hirugarrenen aurrean.

4.5 Tresnen motak, helburuen arabera

Finantza-tresna bat edo bestea erabiltzen da helburuaren edo beharrianaren arabera eta enpresaren heltze-etaparen arabera. Maileguak eta bermeak tresnarik zeharkakoak dira. Mikro-kredituak, txekak eta hazi-kapitala negozioaren hasierako faseetarako dira egokiak; kapital-tresnak, berriz, heltze-etapetarako eta arrisku handiagoa lotuta duten proiektuetarako.

— **Enbrioi- eta hazi-etapa.** Negozio baten sorreraren lehenengo etapetan, talde ekintzaileak arreta negozio horren bideragarritasunaren azterketan jartzeko joera du. Ikerketa horren kostuak aurrezki propioekin edo inguruko pertsonen aurrezkiekin estali ohi dira. Gainerako finantzaketa lortzea, zenbateko handia ez den arren, ez da erraza hasi berri diren negozioentzat. Hazi-kapitala lortzea zaila da, enpresa berriek ez dutelako berme nahikorik, eta horrez gain, ez dutelako egiaztatze moduko kreditu-historiarik. Gainera, sormen-arloko enpresaburu txikiek normalean ez dituzte ezagutzen finantza-iturriak, eta negozio-plan bat inor konbentzitzeko moduan aurkezteari buruz ere ez daukate prestakuntzarik. Estatuan, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren mendeko **Enisa** erakundea bereziki segmentu horretan aritzen da.

Tresna egokiak: txekak, mikro-kredituak eta *seed capital*.

— **Hazkundea.** Negozioari ekin zaionean, merkatua ezagutzen eta fakturatzeko hasten denean, ekintzaileak normalean likidezia aldetik eragozpenak izango ditu, baita finantzaketa-premiak ere, hazi ahal izateko. Gainera, langileak kontratatu beharko ditu eta azpiegituran inbertitu beharko du.

Tresna egokiak: bizkortzaileak, inkubagailuak, arrisku-kapitala, maileguak eta bermeak.

— **Proiektuen garapena** (produktuak eta zerbitzuak), hau da, I + G, fase kritikoa da, eta funts nahikoak eskatuko beharko dira. Gaur egun horrelako beharrianetarako egokiak diren finantza-irtenbideak daude.

Tresna egokiak: ekarpen berreskuragarriak, maileguak, bermeak eta *business angels*.

— **Berrikuntza.** ETE-ek, orokorrean, ez dute ahalmenik berrikuntza-prozesuak kudeatzeko, ideia sortzen denetik merkaturatzen den arte. Berrikuntzak arrisku handia ekarri ohi du berekin. Bestalde, kultura- eta sormen-sektoreak oso berritzaileak dira, baina batzuetan berrikuntza hori errentagarri bihurtzeko ez daukate ikuspegirik.

Tresna egokiak: berrikuntza-txekek, maileguak eta arrisku-kapitala.

— **Nazioartekotzea.** Esportazioari ekitea eta kanpoaldean merkatuak irekitzea erabakitzen duten enpresek batik bat kanpoko merkatu horiei buruzko aholkularitza eta orientazioa behar dituzte, finantzaketaz gain.

Tresna egokiak: nazioartekotzeko txekak, maileguak eta arrisku-kapitala.



12. irudia. Tresnen moten laburpen-taula, helburuaren arabera

	Ekintzailtza	Hazkundera	Proiektuen garapena	Berrikuntza	Nazioartekotzea
Txekeak					
Ekarpen berreskuragarriak					
Maileguak					
Mikro-kredituak					
Partaidetza-mailegua					
Arrisku-kapitala					
Business angels					
Seed capital					

EAEn dauden laguntzei buruzko panorama orokorra edukitzeko, **SPRI** taldearen laguntzen katalogoa kontsultatu ahal da, baita **Arabako Foru Aldundiaren**, **Bizkaiko Foru Aldundiaren** eta **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** laguntzak ere. Nabarmenezkoa da, halaber, **BEAZ**ek ematen duen zerbitzua, berak emandako laguntzen osagarriak diren beste laguntza batzuei buruzko informazioa eta aholkua ematekoa. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuek, euren ekonomia-sustapeneko zerbitzuen bitartez, adibidez **Vitoria-Gasteizen**, edo garapen-agentzien bitartez, adibidez Bilboko **Lan Ekintzaren** edo **Donostiako Sustapenaren** bitartez, udalerrietako sarea eta ekonomia bultzatzen dituzte, laguntzarako neurrien katalogo zabal baten bidez. Erakunde horiez gain aipatzekoak dira udalerrietako garapen-agentziek eta inkubagailuek sustatzen dituzten programak.

Jarraian lehenengo hurbilketa bat doa, gaur egun dauden entitateak eta produktuak identifikatzeko. Finantza-laguntzak ardatz hartuko ditugu, arreta berezia jarrita tresna berrietan, euskal administrazio publikoek ematen dituzten laguntzak zehaztu gabe; halakoen artean daude laguntzarako formulak, prestakuntza, edo enpresa-proiektu berriak inkubatzeko espazio fisikoen eskaintza, azken hori ere laguntza gisa. Honako taula honetan doaz Euskadin dauden formula berritzaileen adibide batzuk. Berrikuntzaren arloko jardunbide onen lagin bat azaltzea da asmoa. Hala, adibidez, nazioartekotzearen kasuan, SPRIk (eta beste entitate batzuek) laguntza ugari ematen dituzte, eta horrez gain, estatuan, finantza-arloko aholkularitzako zerbitzuak ematen dira, esate baterako ICEX erakundearena. Finantza-formula

berritzaileak soilik hautatu dira, eta gainerako laguntza eta beka baztertu dira. Kasu hau sakonago aztertzeke, duela gutxi sortutako BasqueTrade & investment agentzian edo Basque consortium-ek⁹ egindako gidan begiratzea dago.

13. irudia. EAEn dauden tresna nabarmenen laburpen-taula

	Ekintzailtza	Hazkundera	Proiektuen garapena	Berrikuntza	Nazioartekotzea
Txekeak				SPRI: Basque digital innovation hub	
Ekarpen berreskuragarriak					SPRI: Gauzatu - Kanpo ezarpenetarako
Maileguak	SPRI, FEI eta Elkargi: Aurrera Inbertsioak + zirkulatzaileak start upentzat	Elkargi, Industria Kultural eta Sormenekoentzako LANDU maileguak Finantzen Euskal Institutua. ETE eta MIDCAP	Elkargi, Industria Kultural eta Sormenekoentzako ERAIKI maileguak	Elkargi: Berrikuntza-funtza	Finantzen Euskal Institutua: Esportazioa
Mikro-kredituak	Enisa				
Partaidetza-mailegua	Seed capital Bizkaia: Mikro Funtza				
Arrisku-kapitala	Seed capital Bizkaia: I Funtza	Basque Funtza I	Basque Funtza II	Seed capital Bizkaia: Bi Funtza FEIS Funtza	
Business angels	Creceer+ Keiretsu Forum Eushadi				
Seed capital	Hazibide Seed Capital Bizkaia Seed Gipuzkoa				

Egindako azterketatik bi elementu nabarmendu ahal dira, etorkizunean kultura- eta sormen-sektoreentzat berriazko tresnak diseinatzean kontuan hartu beharrekoak.

Lehenengoz, kultura-sektoreen artean, tradizioan ikus-entzunezkoek izan dituzte finantzaketa-formula gehien (mailegu berreskuragarriak, eskubideen erosketarako kontratuak finantzatzeko). Aurretiko esperientziak kontuan hartu beharko liriateke finantzaketa-lerroak hobetzeko.

Bestaldetik, enpresa berritzaileen proiektuetarako eta gizarte-arloan berritzaileak diren enpresa-ekimenetarako berriazko finantzaketa-lerroak agertzen dira, adibidez Seed capitalen lurralde-programak. Baliteke kultura- eta sormen-sektoreen ezaugarriak eta esku-hartzeko esparru horienak antzekoak izatea.

9_ http://basqueconsortium.eus/wp-content/uploads/2016/08/gida_basque_consortium_EUS_iraila_2017.pdf

5_Kasuen azterketa

Atal honetan laburbilduta agertzen dira erakundeen jardunbide onak, barnean direla tresna eta laguntza batzuk. Agertzen diren kasuak kultura- eta sormen-sektoreei laguntzeko programak egiten dituzten erakunde publikoei eta erakunde publiko-pribatuei dagozkie. Programa horien artean daude azaldutako tresnak.

Good practice report Towards more efficient financial ecosystems: Innovative instruments to facilitate Access to finance for the Cultural and Creative Sectors izenburuko txostenean, azaldutako finantza-tresna bakoitzaren jardunbide onen adibide ugari ikus daitezke. Produktu-mota bakoitza ez dugu sakon aztertzen; aitzitik, jarraian aztertuko diren adibideak hautatu dira kultura- eta sormen-sektoreen esku hainbat zerbitzu jartzen dutelako.

Zehazki, kasu hauek aukeratu dira:

Fonds d'investissement de la culture et des communications. (Québec-Kanada). Sozietatearen osaerarengatik eta produktuen aniztasunarengatik.

Institut de financement du cinéma et les industries culturelles. (Frantzia). Frantzian kultura-industriak finantzatzeko erreferentziako kreditu-erakundea izateagatik.

Institut Català de les Empreses Culturals. (Katalunia). Tresna berritzaileak erabiltzeagatik.

QUEBEC – KANADA: FONDS D'INVESTISSEMENT DE LA CULTURE ET DES COMMUNICATIONS (FICC)

Azalpena. 1997an sortutako arrisku-kapitaleko sozietate honek laguntza ematen die kapital konpartitua duten kultura-enpresei, bai eta gizarte-ekonomiako enpresei ere, adibidez irabazteko asmorik gabeko antolakundeei eta kooperatibei. Enpresa horiek kultura-dukien sorreran, ekoizpenean eta zabalkundean edo dukien enpresei eskaintzen zaizkien laguntza tekniko edo teknologikoko zerbitzuetan aritzen dira. Sektore hauetan egiten dituzte eragiketak: arte eszenikoak, argitalpenak, ikus-entzunezkoak, grabaketak, irratia, telebista, multimedia eta digitala.

Nabarmentzekoak Sozietate mugatua da. Bertan parte hartzen dute finantza-arloko adituek, kultura-industriako espezialistek eta Quebeceko kultura-eremuko artistek. Hauek ditu bazkide mugatuak: Solidarity Fund QFL funtsa, Société de Développement des Entreprises Culturales (SODEC) agentzia publikoa eta Union des Artistes (UDA) elkarteak; azken hori, era berean, bazkide mugatua eta bazkide orokorra da. Gainera, bazkide orokor dira Quebec Musicians Guild (GMMQ) eta Union des Écrivaines et Écrivains Québécois (UNEQ). Kombinaketa horri esker, parekorik ez duen antolakundea da FICC.



Inbertitzeko irizpideak. Hainbaten mende daude: produktuaren mende, kudeaketa-taldearen mende, enpresaren errentagarritasun eta merkatuaren mende, eta enpresa-proiektuaren helburu eta ezaugarrien mende. Kalitate edo originaltasun bikaineko produktu edo zerbitzuak garatu dituzten enpresei on egiten die. Enpresek frogatu behar dute nola nabarmentzen diren lehiakideen artean, zein diren euren produktuaren alderdi berritzaileak eta produktu horiek nolako bilakaera izan ahalko duten denboraren poderioz. Kultura-arloko enpresa baten arrakasta, neurri handi batean, bere taldearen sormenaren mende dago. Era berean, garrantzitsuak dira kudeaketaren kalitatea, industriaren ezagutza eta lidergoan metatutako esperientzia. Zuzendaritza-taldeak profesionaltasuna agertu behar du, trebetasunez eta ezagutzez gain. Merkataritza-estrategiak zehaztu behar du nola ahalko duen, hiru eta bost urte bitarteko epe batean, errentagarritasun nahikoa sortu negozio-plana burutzeko. Aurrera egiteko, enpresa batek bere produktuak sortu eta ekoiztu ez ezik, saldu ere egin behar ditu. Negozio-planak merkatu objektiboaren forma eta tamaina nabarmendu behar ditu, konpainiak merkatura sartzeko eta merkatu horretan eragina izateko hartu behar duen sustapen-ikuspegia eta erabili behar dituen zabalak eta/edo banaketa kanalak identifikatu behar ditu.

Negozio-proiektuak sustatzen dituzte, proiektuon xedea hau bada:

- Enpresa haztea.
- Produktu bat merkaturatzea eta / edo merkaturatzea hedatzea.
- Negozio-eredu berriak garatzea.
- Teknologia-berrikuntzari ekitea.
- Kudeaketa, enpresek Quebecen edo nazioartean industria-sektore bat sendo dezaten.
- Enpresa baten ondorengotza, kultura-industriaren goraldi eta garapenean laguntzen jarraitu ahal izan dezan.

Finantza-produktuak. Kuasi-kapitaleko finantza-produktuak eskaintzen dituzte enpresei laguntzeko. Noizean behin, bankuko finantza-produktuak erabil ditzakete.

PARTAIDETZA-MAILEGU BERMATU GABEA: arriskuan oinarritutako tasa daukaten interesekin. Enpresaren hazkundeari loturiko partaidetza-prima zenbait modutan lor daiteke:

- Akzioak erosteko aukera, bermatutako kuotak edo negoziatutako kopuruak.
- Salmenta edo onuren gaineko royalty-ak.
- Enpresaren finantza-egiturara egokitutako bestelako bono-formak.
- Maileguaren gehieneko epea 8 urte da.
- Interesa hilabeteko lehenengo egunean ordaintzen da, ordaindu eta geroko lehen hilabetetik aurrera.
- Itzulketa nagusia konpainiaren *cash flow*ari egokitzen zaio, eta itzulketaren gainean luzamendu bat dago epearen hasieran. Luzamendu hori beharizanen arabera zehazten da.

KAPITALA: FICC-k enpresan akzioak izan ditzake, edo lehentasunezko akzioak ere bai. FICC-ren eta konpainiako beste akziodunen artean egiten diren akziodunen akordioen barruan, besteak beste klausula batzuk sartuko dira, Funtsek bere inbertsioa babestu ahal izan dezan, baita beste klausula batzuk ere, bere mende dauden akzioen berrerosketa bermatzeko.

EPE LABURREKO FINANTZAKETA (bermatua): zerga-kredituen eta kobratu gabeko kredituen % 70, gehienez.

- Finantzaketa-premiak dauzkaten enpresentzat erabilgarri dago, SODEC-ek premia horiek estali ezin duenerako
- Gehieneko epea: 24 hilabete
- Gutxieneko finantzaketa: 50.000 \$.

BERMEAK /ABALAK: FICC-ek emandako banku-berme baten bidez egindako finantzaketa, proiektuak iguripenen arabera lortuko dituen diru-sarreraren gainean.

- Mantentze-tasak eta berme-tasa gutxienez % 2n ezartzen dira, bakoitzean.
- Mugaegunean, FICC-ri egindako ordainketa guztiak, banku-bermearen arabera, mailegu korporatibo bihurtuko dira.



PROIEKTUEN FINANTZAKETA: Proiektu espezifiko batean egindako inbertsioa.

- _ Balioen konpromisoa, kasurik kasu zehaztuko dena;
- _ Kapitala berreskuratzea, bai eta partaidetza-prima bat ere, proiektuaren diru-sarrera edo irabazi operatiboen gainean royalty gisa ordaindua, partaidetza-maileguak baino etekin handiagoa sortzeko;
- _ Inbertsioaren gehieneko epea: zortzi (8) urte;

PERTSONALIZATUTAKO FINANTZA-PRODUKTU MISTOAK, enpresen beharrianak betetzeko. FICC-k gehienez 3 milioi \$ inbertitu ahal ditu konpainia bakar batean, lehenengo inbertsio batean 1.5 milioi \$ sartuta. Irabazteko asmoa duen enpresa batean egin beharreko gutxienezko inbertsioa 250.000 \$ da, gizarte-ekonomiako enpresa batean 150.000 \$ eta epe laburreko finantzaketarako 50.000 \$. FICC-k beste finantza-bazkide batzuk gonbidatu ahal ditu enpresan batera inbertitzeko. Planteamendu horren arrazoia da kultura-enpresek sarritan eragozpenak dauzkatala beren produktuak finantza-entitate tradizionaleri saltzeko. FICC-ren ustez, finantza-entitate tradizional horiek baterako enpresetan parte hartzera gonbidatzea modu efektiboa da kultura-industrian aurreiritziak ezabatzeke.

FRANTZIA: INSTITUT POUR LE FINANCEMENT DU CINÉMA ET DES INDUSTRIES CULTURELLES (IFCIC)

Azalpena. 40 urtean baino gehiagoan, Frantziako Kultura Ministerioak banku-bermeko funtsak eman ditu, bereziki filmak ekoizteko maileguetarako; hala, buru izan da kultura-industrien finantzaketari laguntzen dioten ekintzetan. IFCIC (Zinema eta kultura-industriak finantzatzeko institutua) 1983an sortu zen, Kultura eta Ekonomia Ministerioen ekimenez, politika hori indartzeko, kultura- eta sormen-sektoreek bankuen finantzaketa eskuratzeko bidea emanez. Interes orokorreko zerbitzu batez arduratzen den sozietate pribatua da. Bere kapitalaren % 49ren jabeak Frantziako Estatu eta Bpifrance taldea dira, eta % 51 akziodun pribatuen eskuetan dago; akziodun pribatu horien artean daude, zuzenean edo zeharka, Frantzian ezarritako merkataritza-banku eta kreditu-erakunde gehienak. Bere jardueraren ardatza lehenengoz zinema-ekoizpena izan zen, eta gerora kulturaren eta sormenaren sektore guztietara hedatu zen: zinema,

telebista, zinema-aretoak, musika, argitalpenak, museoak, galeriak, liburu-dendak, arte eszenikoak, prentsa, arte bisualak, diseinua, zinemaren industria tekniko lagungarriak, antzerkia, artisautza artistikoa, moda, diseinua, bideo-jokoak, argazkigintza...

Nabarmentzekoak. IFCIC-ren helburua da bankuak bultzatzea kultura-industriarentzako maileguak emateari lotutako arrisku zehatzak errazago onartzera. Bermeak tresna historikoa dira, baita aurreikusten den lehenengo irtenbidea ere, proiektu bat finantzatzeko laguntzeko. 2006az geroztik, sektorean ETE-ei maileguak emateko gaitasuna ere garatu du. Bere egitekoaren arabera, IFCIC-k emandako maileguen bidez beste banku eta kreditu-entitate batzuek mailegu-hartzailearen finantzaketa-planeari parte har dezatela sustatzen da.

IFCIC-ren jarduerak bazkide instituzional eta profesionalen sare sendo baten onura jasotzen du. 2010 eta 2013 bitartean, Europar Batasuneko MEDIA programak finantzatzeko Hedabideen Ekoizpenerako Berme Funtza (MPGF) administratu zuen. 2015az geroztik, ordezkaritza bat dauka Bpifrance-ri egiten zaizkion eskaerak izapidetzeko, baldin eta eskera horiek kultura- eta sormen-sektoreen barruan badaude. 2017ko uztailaz geroztik, kultura- eta sormen-sektoreen bermerako mekanismoaren laguntza du, Europar Batasunak Europa Sortzailea Programaren barruan emandako finantza-babesarekin.

Finantza-produktuak. Sektoreko enpresei bi motatako produktuak jartzen dizkie eskura zorra finantzatzeko: maileguetarako bermeak eta maileguak.

BERMEA. Bere egitekoaren arabera, kultura- eta sormen-sektoreetan aktiboak diren enpresei (bati bati ETE-ei) banku-maileguak emateko bermeak eskura jartzen dira, kreditu-erakunde estandarrek arrisku-profila ikustean zalantzak agertzen dituztenean. Bermeek arriskuko partaidetzaren forma hartzen dute; partaidetza horretan, IFCIC-k kreditu-transakzioaren amaierako kapital-arriskua bankuarekin konpartitzen du. Maileguez askotariko beharrianak estal ditzakete negozioaren bilakaerako etapa guztietan, barnean direla eguneroko negozioa, inbertsioa edo hazkundera finantzatzeko maileguak eta behin-behineko maileguak edo ekoizpena finantzatzeko maileguak, proiektu zehatzetarako. Mugaeguna aukeratu ahal da (epe laburretik epe luzera). Berme-tasa, normalean, kredituaren zenbatekoaren % 50 eta % 70 bitartekoa izaten da.



Mailegua ematen duen bankuak, bermearen onuradun bakarrak, berme-eskaera aurkezten dio IFIC-ri. Europar Batasunean erregistratuta dagoen eta kultura- eta sormen-industrietan aktiboa den edozein kreditu-erakunde aukera daiteke. 2017ko uztailaz geroztik, IFIC-ek Europako zinema- eta telebista-ekoizpenerako ematen dituen bermeei kultura- eta sormen-sektoreen bermerako mekanismoaren laguntza dute, Europar Batasunak Europa Sortzailea Programaren barruan emandako finantza-babesarekin.

MAILEGUAK. Maileguak erabiltzen dira proiektu batek laguntzari dagokionez indargarri bat behar duenean. Finantza-bankan palanka-efektua lortzeko, orokorrean berme-tresnarekin batera inplementatzen dira. Normalean kultura- eta sormen-enpresen garapenean egin beharreko inbertsioak (haziaren ostekoak) finantzatzen dituzte eta, batez ere, inbertsio ukiezinetan egin beharreko gastuak. Bermatu gabeko maileguak dira. Maileguak kultura- eta sormen-sektoreen bermerako mekanismoaren laguntza dute, Europar Batasunak Europa Sortzailea Programaren barruan emandako finantza-babesarekin.

KATALUNIA: INSTITUT CATALÀ DE LES EMPRESES CULTURALS (ICEC)

Azalpena. Kataluniako Generalitateko Kultura Saileko erakunde publiko hori 2000. urtean sortu zen. Kultura-sektorea garatzearen eta sendotzearen alde lan egiten du; horretarako, kultura-arloko enpresak eta profesionalak sustatzen ditu, lehiakortasuna eta profesionalizazioa hobetzeko. Sektore batzuetako eta besteetako kultura-arloko enpresei eta profesionalai aholkua eta laguntza ematen die; hona hemen sektore horiek: arte eszenikoak, arte bisualak, ikus-entzunezkoak, kultura digitala, liburua eta musika. Horien guztien esku jartzen ditu finantzaketako laguntza eta tresnak, bai eta nazioartekotzeko, enpresa arloan gaitasunak eskuratzeko eta publikoak garatzeko zerbitzuak ere. Bere ekintzen bitartez, ICEC-k laguntza ematen du lehiakorra eta kalitatezkoa den kultura-ehun bat taxutzen; halaber, kontsumo-ohiturak eta publikoen sorkuntza ere sustatzen ditu.

Nabarmentzekoak. Bere laguntza-eskaintza orokorra. Kulturaren sektoreko enpresei eta profesionalai aholkua eta laguntza ematen dizkie, euren garapenerako. Sei ardatz estrategikoren arabera doazen baliabide eta zerbitzu batzuk eskaintzen ditu. Ardatz estrategiko horiek dira laguntza, prestakuntza, informazioa,

sustapena, partaidetza eta berrikuntza. Hala, zerbitzu-karta zabala dauka, batetik diru-laguntzak eta finantzaketa, bestetik prestakuntza eta aholkularitza, prestakuntza, nazioartekotzea, publikoak garatzea eta ikus-entzunezkoen arloko izapide eta kudeaketak. Ekarpen berreskuragarrien formula nabarmentzekoa da, dakarren berrikuntzarengatik.

Finantza-produktuak. ICEC-k kultura-arloko proiektuei laguntza ematen die, kulturaren eremuan enpresa-kultura sustatzeko helburu nagusiarekin. Helburu hori lortzeko, kultura-enpresak itzultzerik gabeko diru-laguntzen mendekotasunetik askatzeko pizgarriak ematen dira; horretarako, apurka finantza-arloko kultura bat berenganatu behar dute, finantzaketa-iturriak erabiltzeko ohitura hartuz. Helburu horrekin, eta zuzenean, ICEC-k, Enpresa Garapeneko Arloaren (ADE) bitartez, finantzaketarako bi tresna nabarmen jartzen ditu kultura-enpresen eskura: ekarpen berreskuragarriak eta partaidetza-maileguak. Horrez gain, eta zeharka, ICEC-k kultura-enpresen eskura hirugarren finantzaketa-iturri bat jartzen du: Kataluniako Finantzen Institutuaren (ICF) aktibo finkorako eta zirkulatzaileko maileguak. ICEC-k Kataluniako kultura-enpresen esku jartzen duen mailegu-lerro hori osatzeko, Kultura Sailaren berme-funtsa batek sarbidea ematen die, abalen eskakizunak arintze aldera.

EKARPEN BERRESKURAGARRIAK: apustu berritzaile horren bidez “kofinantzaketa” erako laguntza ekonomikoak ekartzen dira, enpresak likidezia eskura izan dezan proiektu bati ekiteko. Laguntza horiek modalitate bikoitzean ematen dira: diru-laguntza gehi mailegua. Laguntza itzultzeko, proiektuaren finantza-beharrizanei egokitutako epe bat ezartzen da, kontuan hartuta proposamenak arrakasta edo porrota izan duen. Hainbat motatakoak dira:

- Orokorrak: Musikako, argitalpen-arloko, arte eszenikoetako, arte bisualetako eta multimediatikoa kultura-proiektuak
- Ikus-entzunezkoa: Film luzeak banatzeko planak
- Musika: Musikako jaialdi eta zikloak eta diskografiako eta musika-ekoizpenaren arloko proiektuak.
- Liburua: Argitalpen-arloko proiektu eta planak
- Bideo-jokoak: Bideo-jokoaren arloko proiektuak
- Ikuskizunen banaketa eta ustiapena: Arte eszenikoetako eta zuzeneko musikako proiektuak, Katalunian nahiz Kataluniatik kanpo



Halako laguntzak eskura ditzakete enpresek (pertsone fisiko edo juridikoek) eta irabazteko asmorik gabeko entitateek –orkestra sinfonikoen biren kasuan–, baldin eta euren helburu soziala kultura-edukiak ekoiztu, banatu eta zabaltzea bada, gutxienez 2 urteko antzinatasuna badute eta helbidea Katalunian badute.

Gehienez onartutako aurrekontuaren % 75 eska dezakete (ikuskitzen banaketa eta ustiapenaren kasuan onartutako aurrekontuaren % 100era hel daiteke). Ekarpen berreskuragarriak proiektuaren finantza-arloko beharrezakak beteko ditu betiere. Proiektuaren ezaugarrien arabera, baliteke bermeak ekartzeko eskatzea.

PARTAIDETZA-MAILEGUAK. Bereziki, gorabidean dauden eta negozio digitaleko eredu bat daukaten kultura-arloko enpresei (start-up izenekoei) zuzendutako laguntza-lerroa da, euren enpresa-proiektuen hasierako faseetan laguntza ematea helburu duena. ICEC-k 4,8 milioi euroko funts bat dauka partaidetza-maileguetarako; mailegu horiek kultura-ekintzaileri digitaleri erraztasunak ematen dizkiete euren enpresa-proiektuak hasierako fasean behar dituen gastuei aurre egiteko. ICEC-k lankidetzahitzarmen bat sinatuta dauka Kataluniako Finantzen Institutuarekin; erakunde horrek kudeatzen du partaidetza-maileguak izapidetzeko eta formalizatzeko lana.

Partaidetza-maileguaren abantaila nagusia honako hau da: sozietatearentzat epe luzeko finantzaketa-iturria da, eta ez du eskatzen kanpoko bazkiderik sartzea, ezta sozietatearen jabetzaren egitura lausotzea ere. Partaidetza-mailegua beste finantza-tresna batzuekiko diferentia da honako alderdi hauetan: interes-tasa enpresa mailegu-hartzailearen jardueraren arabera (emaitzak) aldatzen da; interesak zerga-ondorioetarako kendu ahal diren gastuak dira; galdagarritasun-tartea beste edozein kredituren edo mailegu-obligazioaren mendean dago. Aurretiaz amortizatuz gero, funts propioak handitu behar dira. Bermerik eskatu behar izan gabe eman daitezke.

INBERTSIOETARAKO ETA ZIRKULATZAILERAKO MAILEGUAK. Kataluniako Finantzen Institutuak (ICF) Kataluniako kultura-enpresen esku jartzen duen mailegu-lerro hori osatzeko, Kultura Sailaren berme-funtsa batek sarbidea ematen die, abalen eskakizunak arintze aldera.

6 Ondorioak

Finantzaketa eskuratu ahal izatea arazorik handienetako bat da oraindik kultura-eta sormen-sektoreentzat. Kezka hau Europako erakundeek ere daukate, eta hala berresten dute Batzordearen enkarguz azken urteetan argitaratutako azterlanek.

Azterlanik berrienak berrikusita eta kasuak aztertuta, honako ondorio hauek ateratzen dira:

- Finantzaketa-tresna berri bat abian jarri aurretik, ondo identifikatu behar da bere helburua, baita konpondu nahi dituen arazoak eta tresna horien onura jasoko duen sektore edo segmentuaren ezaugarriak eta beharrianak ere. Kultura- eta sormen-sektoreek ezaugarri oso bereziak daukate, eta horiek ezagutu egin behar dira. Era berean, halakoak ezartzeak dakartzan arriskuak baloratzea komenigarria da. Alde horretatik, lehenago ere ikus-entzunezkoen sektorea finantzatzeko formulen esperientzia batzuk egon dira, eta horietatik badago zer ikasi.
- EAEn finantzaketa-arloko kultura dago, metatutako ezagutza ere dago, eta beren ibilbidea eginga duten entitate publiko eta pribatuak ere daude, enpresei euren hazkundearen fase guztietan laguntzeko askotariko programak sustatzen dituztenak. Horren adibide ona dira Eusko Jaurlaritza -SPRI eta Finantzen Euskal Institutua bitarteko direla-, hiru foru-aldundiak, hiriburuak eta tokiko garapen agentziak eta, horiez gain, esate baterako Elkargi, edo erakunde pribatuak, hala nola Talde. Eremu horretan izandako esperientziak ebaluatzea oso lagungarria izan daiteke kultura- eta sormen sektoretara berariaz bideratutako konponbide berrien fokua zehazteko.
- Garrantzitsua da konponbideak planteatzea balio-kate osorako, enpresaren bizi-zikloko etapa guztietarako eta enpresa-profil guztietarako. Sektore horietan ugariak dira mikroenpresak, baina tamaina ertaina edo handia duten beste enpresak ere daude, eta enpresa horien finantza-beharrianak diferenteak dira. Horretarako, produktu batzuen eta besteen osagarritasuna ezagutu behar da, bai eta euren artean dauzkaten loturak ere, zerbitzu-eskaintza ez zatikatzeko. Paradoxa bada ere, finantzaketa-aukera asko egotea eragozpen izan daiteke enpresak bere ezaugarriei gehien egokitzen zaiena aurkitzeko.
- Formularik berritzaileenetako bat da tresna publiko-pribatuak sortzea, eta halakoak dira bermeak; horietan, Administrazioak arriskuak konpartitzen ditu banku-erakundeekin eta arrisku-kapitalarekin. Nabarmentzekoak dira, halaber, administrazioek sustatutako arrisku-kapitaleko funtsak, Euskadin esperientzia interesgarriak izan dituzten horiek. Emaizta positiboak lortu dituen beste tresnetako bat kultura- eta sormen-industrietarako berariaz sortutako ekarpen berreskuragarriak dira. Zehazki finantza-arloari ez dagokion formula bat txekeak dira; halakoak European aplikatzen ari dira, eta kultura- eta sormen-sektoreen beharriari ondo egokitzen zaizkie. Kasu guztietan, eredu horietan, Administrazioak zein enpresa-sareri laguntzen dion, sare horren jarraipen etengabearen parte hartzen du.



- Komenigarria da administrazio publikoek, finantza-tresna zehatzak eskura jartzeaz gain, kultura- eta sormen-sektoreen laguntzarako eta babeserako neurri konbinatu batzuk eskaintzea, eta alde horretatik, aholkua eta prestakuntza ematea eta ingurune aproposak sortzea, ekintzaileek euren erronkei ahalik eta baldintzarik onenetan aurre egin diezaieten. Aztertutako esperientzietan, neurri konbinatuak azaltzen dira. EAEn, Eusko Jaurlaritzaren KSI Berritzaile programa eremu egokia da finantzaketa-formula berriak –adibidez, hemen jorratu diren horiek– arakatzeko. Programa horren helburua da aukera-espazio berriak sortu eta garatzea hainbat arlotan: berrikuntza teknologikoan, antolaketa-ereduaren berrikuntzan eta enpresen finantza arloko trebakuntzan.
- Pozgarria da kultura- eta sormen-sektoreentzat berariazko finantza-tresnak sortzea. Halakoak aplikatzen ari diren inguruneetan, finantza-tresna berrien balorazioa positiboa da. Dena dela, finantzaketarako formula berriak agertze hutsak ez du esan nahi finantzaketa eskuragarriago egongo denik. Oraindik arazo handiak daude kultura- eta sormen-enpresen eta finantza-entitateen arteko informazio-fluxuan. Horren haritik, Administrazioak egin dezakeen pedagogia- eta bitartekaritza-lana funtsezkoa da, batzuek eta besteek elkar ulertzeko eta bien artean informazioaren alderdian dagoen asimetria saihesteko.



Kultura- eta sormen-sektoreen finantzaketa ereduak



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA